

Euskal curriculumuma eta eskolaz kanpoko joko-jolasak

(Interscholastic Sports and Basque Physical Education)

Etxebeste Otegi, Joseba

UPV/EHU. Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzien Fak. Lasarteko
bidea, z/g. 01007 Gasteiz
joseba.etxebeste@ehu.es

BIBLID [1137-4447 (2006), 15; 123-132]

Jaso: 06.10.23

Onartu: 06.11.24

Eskolaz-kanpoko kirol jarduerak hezitzaileak izateko asmoarekin antolatzen ditugu eta aldi berean guztiek onartutako balioak bultzatzeko. Hala ere, tarte handia somatzen da ustez ona denaren artean eta joko-zelaietan behatzen denaren artean. Euskal kulturako Jokoa eta Jolasa konzeptuen ikuspegi ludikoek kontraesan hauek aztertzeo aukera eskaintzen digute, euskal heziketa fisikoak isladatzen duen moralaz azalduz.

Giltza-hitzak: Joko. Jolas. Euskal curriculumuma. Kirola. Gorputz hezkuntza.

Organizamos actividades deportivas extraescolares con el fin de que sean educativas y, al mismo tiempo, para impulsar valores aceptados por todos. Sin embargo, se aprecia una gran disparidad entre lo que se toma como bueno y lo que se observa en los terrenos de juego. Los conceptos Joko y Jolas, propios de la cultura vasca, nos brindan la oportunidad de analizar estas contradicciones, mostrando la moral que refleja la educación física vasca.

Palabras Clave: Joko. Jolas. Curriculum vasco. Deporte. Educación física.

Nous organisons des activités sportives extrascolaires afin qu'elles soient éducatives et, en même temps, pour développer des valeurs acceptées par tous. Néanmoins, on remarque une grande disparité entre ce qui est considéré comme bon et ce que l'on observe sur les terrains de jeux. Les concepts Joko et Jolas, propres de la culture basque, nous offrent l'occasion d'analyser ces contradictions, en démontrant la morale que reflète l'éducation physique basque.

Mots Clés: Joko. Jolas. Curriculum basque. Sport. Education physique.

Semearen igeriketa taldearen eskutitza etxera iritsi zen. Aurtengo eskola arteko txapelketa sasoirako beharrezkoak diren kronometratzaile boluntarioen eskakizuna zekarren. Gauza berezirik ez zuen eskatzen: izena ematea eta txapelketa egunetan hasiera baino ordu erdi aurretik igerilekuan egotea. Nola ukatuko nien nik huskeri hori? Ez al zuten nire etxekoan onerako txapelketa antolatzen? Nola ez nien eskainiko asteburuko ordu pare bat semearen lasterketa behatzen nuen bitartean? Kirola ona denez, denok parte hartu beharko dugu; bakoitzak bere ahalmenen arabera. Guraso gisa, hori egitea, nire betebeharra zen. Izena eman eta semearen bidez eskakizuna itzuli nuen.

Horrek aldagela honetara ekarri nau. Igeriketaren ohiturak jarraituz pilotan jokatzeko erabiltzen ditudan kamiseta eta praka zuriak jantzi ditut. Nahiz eta moztortuaren sentimendua eduki, hor noa antolaketa mahaira. Laster konturatzan naiz nire inguruan daudenak ni bezala dabilatzela: itxura bai, baina esperientziarik ez. Gazte bat dena antolatzen ari da: kronometroak banatzen ditu, fitxak nola betetzen diren ere adierazi du, eta gure kalea zein den ere esan digu. Kronometroa beste askotan erabilia nengoen eta ez da ikastaro luze bat egin behar hori menperatzeko. Epaileak dena martxan ipini arte prestatutako aulki hauetan eseriko naiz.

Zaratak ez du entzuten uzten. Entrenatzaileak garrasika eta txistuka dabilta igerilarietara irteera eta argibideak eman nahian. Igerilekua haurrez beteta dago, bai igerian, baita honen inguruan ere. Uretan dauden zipritzinek eta olatuek okertzen dute igeri egiteko modua: itsasoan baino zailagoa da hemen igeri egitea. Harmailetara begirada bat bota dut eta neure buruari lasai esan diot, “hor goian baino hobe nagoela argi dago”. Gurasoak metaturik daude eta euren aurpegi gorrituak egonezinaren adierazgarri dira. Hor egongo dira, berokiak eta elastikoak besopean seme-alabek igeri egin arte.

“Oso ondo maitea, lehenengoa izan zara”, edo “bigarrena”, edo “hirugarrena”; eta horrela ez bada ere, “ze ondo igeri egin duzun” esatea nahiko ordaina eta saria izango da gure umeen lanarengatik. Nik ere, nahiz eta hemen behean egon, berdin egingo dut. Eta gainera, ze demontre, igerian oso ondo egiten dute!

Txapelketa abiatzen den bitartean, guk ere, gure betebeharrak aurrera eramaten ditugu. Lehena, irteera jo baino lehenago kronometroak zeroan ipintzea da. Bigarrena, erlojua martxan jartzea txilibituak irteera adierazten duenean. Hirugarrena, igerilariak pareta ukitzerakoan denbora gelditzea da. Laugarrena, denbora paperean idaztea; eta azkena fitxak biltzea eta berria jasotzea; hauek dira gure eginkizunak. Epaileek ere, euren kabuz, proba bakoitzeko fitxa bana egiten dute. Dena oso serioa da eta oso serio hartzen dugu lana.

Nire semeak ere igeri egin du; baina ezinezkoa egin zait ondo ikustea, beste kale batetik egin baitu. Nik bera nigana hurbiltzea maiteko nuke, baina hain lotsatia denez urrutitik agurtu nau eta nik ongi egin duela adierazten duen keinua hatzekin egin diot. Igeri egiten duten neska-mutilei ze denbora egin duten esaten saiatzen naiz, baina ezinezkoa da. Batzuk lehenak izan direlako, beste batzuk, bigarrenak edo hirugarrenak, eta denek euren gurasoen aurpegi gorrituak begie-

kin bilatzen dituztelako. Urduritasunean denborak ez du garrantzirik, gurasoak lehenbailehen ikusteak bai. Elkar topatzerakoan hor dago merezitako agurra eta irribarrea. Aitak, amak edo amonak esandako “oso ondo!” hori begiekin entzun dute, ezinezkoa baita belarriekin egitea.

Lasterketa joan eta lasterketa etorri eguna egin dugu: bukatu da, niretzako kronometratzaile bezala lehen esperientzia izan da gaurko hau. Harrituta baina pozik nago; gure haurrek kirola egin dezaten erakundeei laguntza eskaintzeak harrotzen nau: nire semearengatik bakarrik ez dut egiten, gizarte guztiarengatik ari naizela uste dut.

Horrela, Agurainen pasatako arratsalde hark jarraipena eduki zuen: nik egingako azken saioa ez zen izan. Urte bat geroago, Arabako Igeriketa Federakuntzak dauzkan kronometratzaile taldeetan sartu nintzen. Neure lagunek burutik jota nagoela deritzote: agian bai; baina igerilekura joaten naizen bakoitzean harrotasun eta harridura berak harrapatzen nau. Neure buruari galdetzen diot: “Zerk bultzatzen nau epaile izatera eta igerilekura joatera? Zerk gidatzen du nire semea, eta besteak, igeriketan hainbat ordu pasatzera? Eta klubaren lehendakari eta laguntzaileei dena antolatzen? Eta entrenatzailea? Eta igerilekua eraiki duten erakundeak?

Guraso gisa egiten ditudan galderei ikerlariarenak gehitzen dizkiot: Nolatan antolatu du gizarteak gure gaztediarentzat kirolean oinarritutako gizarteratze sistema hori? Zein da eskolaz kanpoko kirolaren esanahia gure herrian? Zerk bereizten ditu kirol hastapena eta goi mailako kirol errendimendua?

Kirola XX. mendeko gizartearen gertakizun berezietarikoa izateak, haurrak eta gazteak horren atzetik ibiltzea du ondorio. Helduek egiten dutenaren ispilua baita umeen mundua. Aurkeztutako burutazioak bi ikerketetan oinarrituta daude; batetik tradiziozko euskal joko-jolasak eta haurren sozializazio prozesua eta bestetik, Euskal kirol joko jolasen sustapen politikak aztertzen dituen, Japonia-ko Kazuyuki Taketani irakaslearekin egiten ari garena, oraindik bukatu gabekoa.

1. BA OTE DAGO EUSKAL KIROLAREN SEN ONA?

Gu denok, eskola kirolari buruz, iritziak dauzkagu bakoitzaren pentsamenduaren arabera, eta horretaz ulertzen dugunaren arabera. Iritzi ezberdinak daude eta hauek bezalako esaldiak entzuten dira: “Eskolaz kanpoko kirol jarduerak kaltegarriak dira eta ez ditut maite”. “Kirola egitea onuragarria da baina hurrekin kontuz ibili behar da, lehiak eurengan eragin handirik eduki ez dezan”. Edo “Entrenatzaile honek gauzak ondo egiten ditu. Esku ona dauka umeekin”. Ala beste hau: “Partidetan guraso batzuen jarrera desagokia da”.

Esandakoa egia ala gezurra den berdin da. Epai moralak etengabe plazaratzen ditugu eta hauek ez dira, ez egiak, ez gezurrak, sinismenak baizik. Gertae-
rak onak edo txarrak direla pentsatzen dugu. Egokiak ala kaltegarriak direla sinisten dugu, eta sinismenek gure jokaerak errotzen dituzte. Horrela, sinisten

duguna indarrez defenditzen da, hainbat arloetan: eskolan, kirol taldean, federakuntzan eta baita Udalan, Aldundian eta Gobernuan ere.

Arazoa horrela ikusita, ez dirudi konponbide erraza dagoenik, bakoitzak bere iritziak baititu, eta hemen esango dugunaren oihartzuna ez baita urrutira helduko. Nire esperientzia pertsonalean oinarritutako iritzia, ez dut uste inorentzat baliagarria izango denik, eta, zintzoa izanik, “Zenbat buru hainbat aburu” euskal atxotitza zaharrarekin bukatutzat eman beharko nuke hitzaldi hau.

Argi daukat, nire uste pertsonalek ez dutela garrantzirik. Ez dut pentsatzen inori interesatuko zaionik nik haur, kirolari, begirale, entrenatzaile, kronometratzaile, irakasle edo guraso gisa hartu ditudan aukerak eta horien funtsa. Nire bizitza ez da zuena baino hobea eta nire burua ez dut eredutzat hartzen besteen bideak argitzeko.

Halere, gure, eta nire, ikuspuntuak garrantzitsuak izan daitezke, horiek jarraitzen dituzten balore sistemaren adierazgarriak diren heinean. Hori ulertzea eta azaltzea, lagungarria izan daiteke gure gizartearen moralaz egazgutzeko. Balore sistema edo sistema axiologikoa nolakoa den argitzeko.

Gizarteak talde sinismenak eraikitzen ditu, eta ez da bat batean egiten den zerbait, belaunaldiak joan eta belaunaldiak etorri egiten direnak baizik. Egun sinesten duguna, ez da Erdi-Aroan pentsatzen zutena, eta gureak ditugun oinarritzko zutabeak ez dira Japonian eredu. Balore sistema horri, modu arruntan “sen ona” edo “sentido comun” delakoa deritzogu. Gizarte bakoitzak bere sen ona dauka eta pentsamendu horrek bizitzaren arlo guztiak bustitzen ditu.

Horiek horrela, kirol jardueretan agertzen ditugun iritziak eta epaiak arlo horretara aplikatutako euskal sen onak bultzatutako burutazioak dira. Orain, gure lana sen on hori argitzea da. Zer nolako irizpideak jarraitzen dituen jakitea, eta horrela, eskolaz kanpoko kirolaren zentzua argitzea; geroago orientabide lagungarriak plazaratzeko. Baina nola jakingo dugu sen on horren berri?

2. JOKOA ETA JOLASA: EUSKAL MORALAREN EREDUAK

Evans-Pritchard antropologoak Afrikako *Zendé* herritarren sen ona aztertzeke *Zendé* herriaren sorginkeria erabili zuen. Sinismen sistemak bizitzaren gertaera guztiak bustitzen ditunez, *Zendéen* sen on hori sorginkerian ere agertuko zelakoan zegoen. Eurentzat “sorginkeria” esatea oso gauza logikoa zen, euren pentsamenduak horretara bultzatzen baitzuen.

Guk kirol joko-jolasen ibilbidea hartuko dugu, eta horiek erabiliz euskal sen ona edo *sentido comun* delakoa azaltzeko aukera izango dugu. Gu baino lehen, Norbert Eliasek eta Pierre Parlebasek, soziologoak eta maisuak, Europarren kirolaren zentzua aztertzeke erabilitako antzeko ildoak jarraituko dugu. Laburbilduz, horrela azaldu daiteke: kirol joko eta jolasak gizartearen islada dira eta honen baloreetan murgildurik daude. Halere esaldiari buelta eman diezaiokegu eta hau-

rrren joko-jolasek eraikiko duten kultura etorkizunean gizartearen jokamolde bihurtuko da. Geziak bi zentzutan joan daitezke. Ispilua bai, baina baita gizarte eraikilea ere izan daiteke.

Balore sistemaren bila gabiltzanez beharrezkoa egiten da erabili behar ditugun datuek ere sistema bat osatzea, modu honetan era egokiago batean azalduko da eta moral hori. Kirol hastapenean dauden baloreak aztertzeko arlo horretako datuak bakarrik erabiltzea urria da, ezinezkoa egiten zaigulako horren esanahi osoa gureganatzea. Kirol sustapenaren zentzua, errendimenduzko kirolarekin konparatzerakoan agertzen da, semiotikaren oposiziozko printzipioa aplikatzerakoan. Eta are gehiago, gorputz heziketaren parean ipintzen bada, eta haurrek euren kabuz egiten dituzten joko eta jolasekin konparatzen baditugu. Hau da, kirolaren arlo ezberdinak, kontutan edukitzea. Horrela, kirol joko eta jolas arloen ezaugarriak agitasun handiz azaltzen dira.

Euskal Herrian egin den haur eta gazteen aisi jardueren bilduma garrantzitsuena Etniker ikerketa taldeak egin du: “Juegos infantiles en Vasconia” delakoa; lan horretan gaur egungo aiton-amonek gazteetan eginiko joko-jolasak daude (Etniker, 1993). Bertan, zehaztasunez eta sistematikoki, Euskal Herriko joko-jolas korpus osoa eta orekatua aurkezten du, jatorrizko gizarteari etengabeko erreferentziak eginez. Ikerketa etnografiko hori abiapuntu hartuta, Euskal Herriko haur kulturaren sena aztertzen jardungo gara.

Horretarako, joko eta jolasen bi arlo aztertuko ditugu: batetik, jardueren barne logika; eta bestetik, kanpoko. Lehenak araudiak azalduko giza egoera aztertu egiten du, eta bigarrenak, kanpo logikak, jarduera horietan gizarteak dituen ohiturak eta usadioak, hots: nesken jolasak eta mutilen jokoak, jai egunetako aisialdiak edo jokoen inguruan dauden apustuak (Etxebeste, 2001).

Barne logikan lau elementu aztertuko ditugu: jokalarien arteko harremanak, psikomotorrak edo sozomotorrak; espazioarekiko lotura, ziurra edo ziur gabea; denbora ikuskera, irabazleduna edo irabazle gabekoa; eta erabilitako tresnak, objektuduna edo gabekoa. Adibideak aipatuko ditugu.

Bi mutilek intxaur pare bana apustu egiten dute: hamar metrotara ipinitako tomate pote zaharrari tirabikez botatako harriarekin ea nork ematen dion. Tirabikeko joko honen ezaugarriak ondorengoak dira: psikomotorra, irabazleduna, espazio ziurra eta objektuduna. Hau da, jokalariek elkarrekiko eraginik ez dute, bakarka jaurtitzen dute, lehian daude, inguru espaziala ez dute irakurri beharrik eta tirabikearekin, objektuarekin, jokatzen dute.

Beste kasu batean, “Pi jolasean”, aldiz, jolaskideak harrapatzailearengandik ezkutatu behar dira, honek begiak itxita dauzkan bitartean. Irekitzerakoan dagoen tokitik gehienez hiru pausu egitean, besteak non dauden ikusten saiatu behar da, eta euren izena aipatzean harrapatuak izateko. Behin denak harrapatzean, aurrena harrapatua izan zena harrapatzailea bihurtuko da eta berriz jolasean hasiko dira. Jolas honen ezaugarriak hauek dira: sozomotorra, (kide baten mugimenduak besteak baldintzatzen ditu), irabazle gabekoa, espazio ziur gabetik

eta objektu gabekoa. Jolas horretan auzoko gazte guztiak jolasten dira: adin ezberdinetako neskek eta mutilak.

Beste batzuetan, emakumezkoak bakarrik aritzen dira, sokasaltoa kasu. Bi neskek soka ematen dute, eta “el cocherito leré” abesten duten bitartean, beste lagunak saltoka dihardu. Kale egitean paperak aldatuko dituzte. Jarduera soziomotorra, objektuduna, espazio ziurrean egindakoa eta irabazlerik gabekoa da.

Ikus ezazue nahi ditugun kirol, joko, jolas edo ariketak sailka ditzakegula modu honetan. Guk azterketa mota hori Etnikerren zeuden aisi jarduera guztiei aplikatu genien. Korpusaren tamaina handiak, 861 joko-jolas, azterlan etnografikoan ez ohiko diren metodo estatistikoak erabiltzeko aukera eman digu. Horrela, korrespondentzia anizkunen analisia (análisis de correspondencias múltiples delakoa) erabili da.

Aldagaien plano faktorialen kokapenaren arabera, aldagaiak bi taldeetan antolatzeko joera dutela esan dezakegu. Batetik, egoera psikomotorrak, espazio ziurrekoak, garailedunak eta tresnarekin; tirabike edo toka txapelketa, baina baita harri-jasotzea ere. Eta bestetik, egoera soziomotorrak, espazio ziurgabeen, garaile gabekoak eta tresna gabekoak. Euskal kulturak, bi hitz ditu jarduera horiek adierazteko: jokoa eta jolasa.

Jokoa eta jolasa kontrako gertakizunak dira. Jokoak irabaztearen plazera bultzatzen du, eta normalean, gizonetzkoen eredia da. Jokoa zerbait jokatzeko da, ohorea, dirua, hitza; horrela, jokatu aditza iragankorra da: “partida jokatu dugu” esaten da. Tirabikeekin egindako lehia jokoa da.

Jolasa aldiz, elkarrekin egoteko denbora-pasa da. Ez dago ezer jokoa, helburua denok ondo pasatzea da; eta modu honetan, jolastu aditza iragangaitza da, ez du objekturik: ezkutaketan jolastu garela diogu. “Pi”, jolasa dela esango dugu. Jolasaz gozatzeko ez dago mugarik, denak ongietorriak dira: adin eta sexu ezberdinekoak ere.

Soka saltoan ibiltzen diren neskek, ez dira ez jokoa ez jolasean jarduten. Horiek, teknikoki, jolasaren bi ezaugarri dituzte: harremanak eta denbora (soziomotorrak eta irabazle gabea), eta jokoaren beste biak: espazioa eta objektua (ziurra eta objektuduna). Jarduera hauek “jolasa-jokoak” izendatu ditugu eta errepikatzearen gustua zabaltzen dute. Nagusiki, soka-salto, korroka eta dantzak dira, eta arlo honetako giza fenomenoetan emakumezkoak aritzen dira.

Hautzaroan eta gaztaroan ikasitakoa, heldutasunean ere erabili egiten da, jokoa eta jolasa giza ereduak baitira. Horrela, gizonetzkoek jokoa bitartez, kanpokoan aurrean izan behar den jokabidea erakusten dute, irabaztearena. Jolasak etxeko arteko harremanak bultzatzen ditu, elkarbanatzeko baloreak: denak ezberdinak talde bakarra osatzeko. Eta azkenik, jolasa-jokoak, etxeko andreak izaera azpimarratzen du; egunero betebeharrak errepikatzearena. Euskal kulturaren jokoa, jolasa eta jolasa-jokoaren erroa, etxea da: beste etxeen

aurrean gurea defenditzea, etxekoan artean elkarlana zabaltzea eta etxeko andreak barne espazio hori kudeatzea.

Evans-Pritchard antropologoa Afrikako *Zendé* herritarren sorginkerian oinarritu zen moduan, guk jokoa eta jolasa erabili ditugu euskal errealtatearen ikuspuntua eta morala agerian uzteko: herriaren sen ona argitzeko. Horrela, euskaldunon balore sistema, sistema axiologikoa, agerian utzi dugu. Orain, ondo hornitutako tresna eta irizpideekin egungo kirol hastapena eta kirol errendimendua aztertzeko prest gaude.

3. ESKOLAZ KANPOKO JOKO-JOLASAK

Euskal curriculumaren edukiak jokoa, jolasa eta jolasa-jokoa dira eta eskola bakoitzak, duen ideologiaren arabera, bakoitzaren presentzia hautatu beharko du. Modu berean eskolaz kanpoko eskaintzan hiru ereduak hautatzeko aukera dago, baina eskolek, nagusiki, dagokion Aldundiaren eskaintza jarraitzen dute, ez baitute beste baliabiderik. Ikus dezagun, orotara, honen antolamendua eta bultzatzen duen zentzua eta sen ona¹.

Jakina da Aldundiek dutela, Eusko Jaurlaritzaren kirol legearen arabera, eskolaz kanpoko kirolaren ardura: hamalau urtetik beherako haurrek parte hartu dezakete kirol txapelketa horietan. Adin horretatik aurrera, kirol federakuntzen eskuetan dago gazteei zuzendutako errendimenduko kirolaren praktika bultzatzea, Eusko Jaurlaritzaren babesean betiere.

Aldundien eskaintza ikusirik, kirol jokoa egiten da; kirol jolasa plangintza ofizialetik erabat baztertuta dagoelarik. Eskolaz kanpoko kirola jokoa dela argi dago, “multikirola” diotena eta kirol hastapen klasikoaren eredia antzeko da: beti jokoa eta honen baloreak. Kanpokoan aurrean etxekoan euskal eredia bultzatzen da, eta jarduera hauek hezitzaileak izan daitezke arlo hori erakusten duten heinean, irabaztearen plazeraz gozatzen erakusten baitute.

Modu berean Kirol Federakuntzak eta Jaurlaritza, hamalau urtetik gorako kirolarien, kirol jokoz arduratzen dira. Eta arlo horretan ere, jarduera hezitzailea izatea posiblea da, etxekoek kanpokoan aurrean duten eredia bultzatzen baitu, eskolaz kanpoko kirolaren plazer bera: irabaztearena.

Atzeritar bati kezka sor diezaioke aurkeztutako antolamenduak, are gehiago atzean dauden liskarren berri badu. Japoniar lagunaren begiradaren harridura jasan egin behar da eta egiten dizkigun galderak erantzutea ez da gauza erraza: Zergatik bi erakunde eta bi antolaketa ezberdin garatzen dituzten baloreak ber-

1. Kazuyuki Taketani Kobe unibertsitateko irakaslearekin lanean ari gara Euskal Herriko kirol joko-jolasen sustapen politikak aztertzen, ikerketak Japoniako gobernuaren sostengua du. Ikerketa honen helburua euskal kirolaren giza talde eta erakunde ezberdinen eragina zein den jakitea da. Lan honek lau urteko iraupena badu ere, eta oraindik bukatu gabe badago ere, behin-behineko ondorio batzuk aurkeztuko ditugu.

dinak badira? Zergatik haurrak bi taldetan banatu hamalau urteko muga erabiliz? Ez al da kontraesan bat? Ez al zen errazagoa izanen erakunde berberak dena gauzatuko balu?

Guretzat “logikoa” denak, ohiturak horrela baitio, atzerritar batentzat ez du batere zentzurik. Honek guztiak, argudioak berrikustera behartzen gaitu eta antolamendu honen pentsamenduaren egitura ulertzea ere bai. Banaketa hori azaltzeko eta gizarteak ematen dituen justifikazioak ulertzeko, bi iturri erabiliko ditugu: batetik ofizialak eta bestetik herrikoiak.

Argudio ofizialak nagusiki bi dira, eta zientzietan oinarrituta daudela diote. Lehena, umearen garapenerako kirolean espezializazio goiztiarra desegokia dela; eta honekin lotuta, bigarrena, haurrengan errendimenduko kirolak osasun arazoak ekar ditzakeela. Horrela, gaitz horiek saihesteko, garapena bermatzeko eta kirola hezitzailea izateko, eskolan egitea proposatzen da, Aldundien babesean.

Euskal sen ona jarraituz ez bata eta ez besteak ez du zentzurik. Kirol espezializazioaren kontra egiteko, eskolan kirol jokoa egiteak ez dauka logikarik, egokiena kirol jolasa egitea izango zen: irabaztearen plazera partekatzearen plazarekin trukatzeko litzateke. Arlo beretik, haurren osasuna babesteko, kirola eskolan eta ez federakuntzen babesean egitea argudiatzeak, ez du indarrik. Euskal atso-titz zaharrak ondo azaltzen baititu jokoa eta osasunaren arteko zailtasunak: “Jokoa, bezperan erronka eta biharamunean errenka”. Horrela, osasuna babesteko modu egokiena ez da jokoa egitea izango, jolasa bultzatzea baizik.

Hori guztia gutxi balitz, eskolaz kanpoko kirolean soin hezkuntzako irakasle-entzuten partehartzea oso urria da (Ortuzar, 2005): antolatzeke era desegokia eta helburuekin bat ez etortzeke dira plazaratutako arrazoiak. Horiek horrela, eskolan egiten den kirola, kirol federakuntza mailako formakuntza duten begiraleek kontrolatzen dute eta ez unibertsitatean formatutako irakasleek. Ez al da hori “otsoa artzain” ipintzea?

Guzti honek kontraesan handi batetara garamatzala dirudi, eta harrigarria da gizarte batek daukan sen onaren kontrako kirol sistema indarrean izatea. Zergatik dago honela Euskal Herriko kirol hastapen sistema hau indarrean euskal sen onaren kontra egiten badu? Nolatan gizarteak ez da, bat-batean, sutan ipintzen? Argi dago beste irizpide batzuk tartean daudela, “politiko eta zientzialariek kontrolpean dituzten irizpideetatik at; gure azterketa momentuz urria da.

Gurasoengana jotzea, eurei galdetzea, interesgarria izan daiteke; azkenean, eurek baitira modu gardenean sen onaren jabeak. Igerilekuko aurpegi gorridun guraso metatuei galdetzen badiegu, euren seme-alabek kirola egin ahal izateko zergatik gastatzen duten horrenbesteko energia eta esfortzu, horrelako zerbait erantzun dute – hau izango zen, nik guraso gisa emango nukeen erantzuna behintzat: “Semea igeri [kirola] egitera gustura doa, maite du; eta gainera, oso lagun talde polita egiten ari da”. Horrekin nahikoa da: zer gehiago argudiatu dezakegu? Nork ez ditu hori bezalako erantzunak eta argudioak askotan entzun?

Beste batzuk osasungarria dela ere argudiatuko dute bigarren maila batean. Hala ere, nork sartuko luke bere seme-alaba osasungarria ez den jarduera batean?

“Maite du”, “gustura doa”, “ondo pasatzen du” eta antzeko esaldiek jardueraren plazerduna dela argitzen dute, aldez aurretik jakina genuena. Baina, sakonki aztertu behar duguna esaldiaren azken zatia da: “oso lagun talde polita egiten ari da”. Hor nagusiki, gazte koadrilaren eta lagun taldearen garrantzia azpimarratzen da, euskal gizarteratzearen zutabeetarikoa bat.

Joko-jolasetara jotzen badugu, analizatu dugunaren arabera, eta kirol jokoen irabaztearen plazerera kirol jolasaren elkarbanatzekoarekin konparatzen badugu jolasak, jokoak baino “laguntasun gehiago” garatuko luke, elkarbanatzeak taldeari banakoari baino garrantzi handiago ematen baitio. Lagunak egitea, etxekoak egitea baita, eta horren ereduak jolasa da. Itxuraz hasierako tokira heldu gara berriz ere, kirol jokoa bultzatu ordez kirol jolasa bultzatzeko premiarra.

Zer ahaztu dugu? Ez al dugu ñabarduraren bat kontutan eduki? Kakoa, jokoa eta koadrilaren artean dagoen lotura izan behar da. Ba ote du loturarik irabaztearen plazerak lagun taldearekin? Ze harreman du?

Horrela ikusita dena argi geratzen da, laguntasuna, etxekoek kanpokoekin kontratu eginiko lehian ere lantzen da. Euskal kulturaren hain garrantzitsua den lagun taldea; koadrila da, azkenean, kirol jokoa hezitzailetzat hartzeko dugun ezaugarria. Elkarrekin, besteekin kontrako lehian garatzen den laguntasuna da kirol hasi tapena egiteak bultzatzen duen plazerak. Funtsean, lagunak dira gure seme-alabentzat kirola egitea erakargarria bihurtzen dutenak. “Logikoa” da, euskal sen onarekin bat dator.

4. ONDORIOAK: LAGUN TALDEA ETA KIROL ANTOLAMENDUA

Ikasketak ez lirateke lagungarriak izango, gizartearen norabideak finkatzen lagunduko ez balute. Jokoa eta jolasaren esanahiak eskutan izanik ondorio hauek esan ditzakegu:

Euskal soin hezkuntzako curriculumak kirol jokoa, jolasa eta jolas-jokoan errotuta egon behar da; honela euskal gizarteak, tradizioa abiapuntua izanik, gaur egun nahi dituen giza ereduak bultzatu ditzake (Etxebeste, 2004).

Eskolaz kanpoko kirolak posible du hiru jardueraren mota horiek ere erabiltzea: eskola bakoitzak hautatu beharko luke garatu nahiko lukeen hiritarra eta zer nolako funtzioa beteko luketen gorputz jarduerak. Egun, Aldundiek kirol jokoa sustatu dute, lagun koadrilak elkarren kontra lehian ipiniz. Honela, legeak lagun taldeak hamalau urte arte elkarrekin bermatu nahi ditu, haurrak giza garapen egokia izan dezaten.

Errendimenduko kirola, jokoa errotuz egiten da; baina ez du euskal hiritarren garapena inongo arlotan babesten: gurasoen eskutik geratzen da ildo honetara.

tik jarraitzea ala ez. Jokoa bere gordintasunean agertzen da: ipar-orratz bakarra irabaztea da.

EAEko Kirol legeak haur edo gaztearen adinean ipintzen du eskolaz kanpoko kirola, eta kirol federatuaren arteko banaketa. Interesgarria izanda ere, lagungarri izango liratekeen haurraz gain, haur talde osoa sendotu eta zainduko luketen neurriak. Dudarik gabe, arazo horiek talde kiroletan ageri dira nagusiki, banako-etan gorputz osasunarenak ateratzen diren bezala. Horrela, komenigarria izan daiteke “fitxajeak” kontrolatzea, haurraren lagun taldea apurtu ez dadin.

Gorputz hezkuntza, eskolaz kanpoko kirola eta errendimenduko kirola ez dira bata bestearen kontra egon behar, bakoitzak bere arloa baitauka. Jaurlaritzak, arloak ondo bereziko dituen legea indarrean ipini behar du, baina gurasoak hautatu beharko du bere seme-alabaren etorkizuna, gutxieneko batzuk bete ondoren. Gutxiengo hori lortzeko Euskal sen onari ekin beharko diogu denok.

5. BIBLIOGRAFIA

ETNIKER. *Juegos infantiles en Vasconia*. Bilbo: Eusko Jaurlaritza, 1993.

ETXEBESTE OTEGI, Joseba. *Les jeux sportifs éléments de socialisation traditionnelle des enfants du Pays Basque*. Tesis Doctoral, París: Sorbonne, Universidad París V, 2001.

ETXEBESTE OTEGI, Joseba. “Educación Física”. In: *Currículo Vasco: Itinerario Cultural*. Donostia: Ikastolen Elkartea, Gobierno Vasco- Departamento de educación, universidades e investigación, 2004; pp. 63-74.

ORTUZAR OYANGUREN, Iñaki. *El deporte escolar y el profesorado de educación física*. Tesis doctoral (Inédita) UPV-EHU, 2005.